# LAZKAO

| # 05 | 2016 IRAILA |

LAZKAOKO UDALA



# AURKIBIDEA

03 Gazte laguntzailea beka



04 Etxebizitza Plana

06 Webgune eta irudi korporatibo berriak

08 Lazkaoko ekintzaileak

10 Uda geroko ikastaroak




12 Pausoka ekimena

14 Laburrak

LAZKAOKO
UDALA

| Tf. 943 08 80 80
| udala@lazkao.eus
| www.lazkao.eus

02. UDALAREN GAZTE LAGUNTZAILE BEKAREN IRABAZLEA



Jessica Cantero, Afrikara egindako bidaia batean.

# JESSICA CANTERO

*Gazte kooperantea*

## "Afrikable proiektuaren bidez, emakumeei ogibide bat irakatsiko zaie"

Afrikar kultura betidanik maite izan du Jessica Canterok, eta horren seinale da aurkeztu zuen Afrikable proiektua Udalak eskaintzen duen gazte laguntzaile bekaren deialdiaren baitan. Keniako Lamu irlara joango da hilabete batez tratu txarrak edo eraso sexualak jasandako emakumeak lagundu asmoz. Afrikable proiektuaren bidez, emakumeei ogibide bat irakatsiko zaie eta haien seme-alabei doako hezkuntza eta jangela eskainiko zaie. Emakumezko horien artean bidezko merkataritza bultzatuko da eta autonomo izaten lagunduko zaie. "Gazte laguntzailea beka lortzeak asko poztu nau", dio.

*Errealitatean aldaketak egiten ditugunean, nahiz eta txikiak izan, gauzak aldatu daitezke*

Jessica Cantero

Afrikable elkarteak soilik Kenian egiten du lan, Lamu irlan zehazki. 10.000 bat biztanleko irla horretan biztanleria gehiena musulmana da, nahiz eta Kenia osoan biztanleen erdia baino gehiago kristaua izan. Egun ez du gatazka berezirik eta hala ere, zuhurtziaz jokatuko duela dio.
Beka hauek oso garrantzitsuak direla uste du eta bat egiten dute bere izaerarekin. „Inoiz ez zait burutik pasa Afrikara turista moduan joatea", azpimarratzen du. Umeen arloan aritzea gustatzen zaio eta Lamun horretan ibiliko da batez ere, eskoletan, jangelan eta aisialdirako ekintzak antolatzen.
Lazkao herri solidarioa dela uste du. „Garrantzitsua da errealitateari ihes ez egitea, eta herrialde txiroetako errealitateak ezagutzea eta hauekin enpatizatzea. Ez dugu mundua aldatuko Afrikara joateagatik eta ez dugu pobreziarekin bukatuko, baina errealitatean aldaketak egiten ditugunean, nahiz eta txikiak izan, gauzak aldatu daitezke", gaineratzen du.

## "Gracias al proyecto Afrikable, las mujeres aprenderán un oficio"

Jessica Cantero siempre se ha sentido atraída por la cultura africana. Prueba de ello es el proyecto Afrikable que presentó a la convocatoria de beca que concede el Ayuntamiento a los jóvenes ayudantes. Acudirá a las islas Lamu (Kenia), realizará labores de cooperación y ayudará a las mujeres que han sido excluidas de la sociedad y han sido víctimas de malos tratos y agresiones sexuales.

Gracias al proyecto Afrikable, las mujeres de esas pequeñas comunidades aprenderán una profesión y sus hijos podrán acudir gratis tanto al comedor como al colegio. El comercio justo facilitará que esas mujeres puedan tener un futuro mejor y sean autónomas e independientes.

La asociación Afrikable opera solo en Kenia, exactamente en las islas Lamu, un archipiélago donde viven alrededor de 10.000 habitantes, la mayoría de ellos musulmanes, a pesar de que en Kenia la mitad de la población es cristiana. La isla no sufre ningún conflicto en la actualidad. "Me alegrado mucho conseguir la beca de Jóvenes ayudantes", comenta.

Jessica considera que estas becas son muy importantes y que conectan con su modo de ver la vida. „Nunca se me ha pasado por la cabeza ir a África a hace turismo", subraya. Se siente especialmente cómoda trabajando con niños y ese sera su cometido en Lakun: asistirles en el colegio, en el comedor y en las actividades de ocio.

Cree que Lazkao es un pueblo solidario. „Es importante no huir de la realidad y empatizar con la realidad de los países en vía de desarrollo. No vamos a cambiar el mundo por ir a Africa ni vamos a acabar con la pobreza, pero si realizamos cambios en la realidad de una comunidad, aunque se trate de cambios pequeños, la mejora es evidente", concluye.

# Etxebizitza Planaren lanketa martxan jarri du Udalak



San Inazio auzoko artxibo irudi bat.

Lazkaoko Udala Etxebizitza Plana abiarazteko lehenengo azterketak burutzen hasiko da 2015-2019 kudeaketa planari jarraiki. Lana eta etxebizitza izatea edozein herritarren beharrizana dela kontuan hartuta, bereziki gazteen garapenean, Udaleko Etxebizitza eta Jarduera Ekonomikoko batzordea bi gai horien inguruan lanketak burutzen ari da.

Hiru ardatz izango ditu Etxebizitzaren inguruko lanketak: batetik, egungo Lazkaoko etxebizitzen egoeraren azterketa, bestetik, etxebizitza hutsak identifikatzea eta azkenik, hurrengo urteetako etxebizitza beharrizanak ezagutzea.

Bien bitartean, hainbat azterketa egingo dira: etxebizitzen batez besteko adina aztertu; irrisgarritasun arazoak dituztek eraikinak identifikatu; potentzialki hutsak diren etxebizitzak identifikatu eta mekaturatzea errazteko ekintzak diseinatzeko informazio baliagarria jaso, etxeak hutsik izatearen arrazoiak ezagutu asmoz. Horrez gain, etxebizitza beharrak eta ezaugarriak kuantifikatuko dira: jabegoa edo alokairua; etxeen tamaina... Horrekin batera, kontuan hartuko da Lazkaok inguruko herrietatik bizilagunak erakartzen jarraitzen duela.
Azterketa guzti horien ondoren, Udalak datorren urteetako etxebizitza plangintza burutzeko oinarri eta azterketa argia izango du.

"

*Datorren urteetako etxebizitza plangintza burutzeko oinarri eta azterketa argia izango du Udalak*

*Elkarlana datuen bilketarako*

Iaz Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuak Biziberritzeko Plana burutu zuen Udalak. Aurten, lan horretan proposatuko ekintzei foma ematen dihardu. Udaletik herritarrei animatu nahi zaie azterketa horietan parte hartzea, lortzen diren datuek ahalik eta fidagarritasun handiena izan dezaten.



# El Ayuntamiento pone en marcha el desarrollo del Plan de Vivienda

El Ayuntamiento de Lazkao impulsará los primeros estudios para ejecutar el Plan de Vivienda siguiendo el plan de gestión 2015-2019. Teniendo en cuenta que tanto el trabajo como la vivienda forman parte de las necesidades de los ciudadanos (especialmente importantes en el desarrollo íntegro de los jóvenes), la comisión de Vivienda y Actividades Económicas ha empezado a realizar las primeras estimaciones en torno a esos dos indicadores.

El desarrollo del Plan de Vivienda tendrá tres ejes principales: por un lado, el estudio de la situación actual de la vivienda en Lazkao; por otro lado, la identificación de las viviendas vacías de la localidad y por último, conocer y prever las necesidades habitacionales y de vivienda.

Mientras tanto, se realizarán varios estudios: se examinarán la edad media de las viviendas; se identificarán las viviendas con problemas de accesibilidad así como las viviendas vacías que pudieran volver al mercado (se diseñaría para ello un plan de acciones para promover su acceso); se estudiarían las razones para no confiar en el alquiler, por ejemplo. Además, se procederá a cuantificar las necesidades y las características de la vivienda: alquiler o vivienda en propiedad; el tamaño de las casas... Se tendrá en cuenta que Lazkao seguirá atrayendo a vecinos de la comarca que deciden vivir en nuestra localidad. Tras el estudio de todas las variables, el Ayuntamiento tendrá en su haber un completo y claro diagnóstico para ejecutar el Plan de Vivienda.







*El Ayuntamiento tendrá en su haber un completo y claro diagnóstico para ejecutar el Plan de Vivienda.*

■ Lazkaoko Udalak, behin irudi korporatibo berria aurkeztu eta gero, webgunearen eguneratzeari ekin dio. Irudi korporatibo berriak Udala eta herriaren irudia ordezkatuko ditu, eta webguneak, berriz, sasoi digital berrira egokituko du Udalaren erakusleihoa.




# Lazkaoko Udalak webgune berria egin du...

Lazkaoko Udalak webgune berria estreinatuko du, Lazkao.eus atariak ikusmen handiagoa izango du, eta nahiz eta irudiak garrantzia handiago hartuko duen, helburu nagusia egungo premiei behar bezala erantzutea izango da. Webgune honen bitartez, herrian gertatzen denaren berri edota gertatuko denaren berri izango du herritarrak. Kontsultak egitea ere errazagoa izango da eta, gainera, nabigatzeko erabiltzen den edozein gailura egokituko da.

Hortaz, jauzirik handiena egungo komunikazio digitalera egokitzea izango da. Garai batean dena menuaren bidez egiten zen, baina, orain, lasterbideak dira nagusi eta, ondorioz, atariak berak eduki osoaren laburpen bat egiten du.

Edukiari dagokionez, aldaketarik handiena herritarren presentzia areagotzea da. Udalaren irudi instituzionaletik aldendu eta

## ... eta irudi korporatibo berria

Lazkako Udalak eta herriak irudi korporatibo berria estreinatu dute. BIT&MINA agentziako Arkaitz Barriola izan da irudion egilea eta haren hitzetan, bi marka bereizgarri osatu nahi izan dira. Batetik, udaletxearen estilo-marka finkatu da eta bestetik herriari begira da beste irudi bat. "Hegoak harro" izenburua darama irudi horrek eta "herriko elkarteen mugimendua" adierazteko baliatuko da. Lazkaotarrok antzarrak izaki, animalia hori ager-tzen da herriaren irudian.
Gainera, egokitu egingo dira hainbat esparrutara. Herriko elkarteek harrotasuna adierazteko aukera erakutsi ahal izango dute: "kirolean harro; kulturan harro", esaterako.

## ...y nueva imágen corporativa

El Ayuntamiento y el pueblo de Lazkao cuentan con una nueva imagen corporativa que se adecua a la nueva comunicación digital. Arkaitz Barriola ha sido el responsable de estas nuevas imágenes en las que se puede distinguir dos estilos. Por un lado, tenemos la marca del consistorio y por otro lado, la imagen que representa a la localidad de Lazkao, que lleva como título "Hegoak harro". Los lazkaotarras (gansos a efectos populares) podrán mostrar su orgullo en la nueva imagen: kiroletan harro (orgullosos en deporte), "kulturan harro "(orgullosos en cultura)... Según el responsable Arkaitz Barriola, servirá para transmitir la idea de "movimiento de las asociaciones de Lazkao".




# El Ayuntamiento estrena nueva web...

El Ayuntamiento de Lazkao estrenará nueva web. La web lazkao.eus será más visual y la presencia de la imagen será mayor ya que el objetivo principal será responder a las necesidades actuales de la comunicación digital.
El usuario podrá seguir las noticias y la actualidad de Lazkao. Además, se facilitará la realización de consultas y se adecuará a las diferentes formas de navegación.

Por tanto, el salto cualitativo será la adaptación a la comunicación digital. Hasta hace no tanto, todo giraba en torno al menú y ahora predominarán los atajos y la página realizará automáticamente el resumen de todo el contenido.
En cuanto al contenido, el cambio más significativo será el aumento de la presencia de los ciudadanos. Una forma de alejarse de la imagen institucional y reflejar "una imagen agradable y cercana, viva y alegre", según relata Unai Marzo, el responsable del diseño de la web.

La nueva web facilitará el acceso y la difusión del contenido y la interacción con las redes sociales, en Facebook y Twitter. "Hoy día no se puede plantear una web sin contar con las redes sociales y la comunidad que se genera", asevera el responsable la web.

En caso de Lazkao, el objetivo ha sido encauzar un instrumento que resulte útil tanto para el Ayuntamiento como para los ciudadanos y crear una comunidad de usuarios.

"Las web anteriores eran meros escaparates, pero hoy se han convertido en un lugar de encuentro y las relaciones se han convertido en el principio de la comunicación", concluye.

> *El objetivo ha sido encauzar un instrumento que resulte últil tanto para el Ayuntamiento como para los ciudadanos*

"herria islatuko duen irudi atsegin eta goxoa, bizia eta alaia" gailendu nahi izan da, atariaren diseinuaren arduradunaren arabera.

Webgune berriak era guztietako edukia partekatzeko erraztasuna emango du, eta saretik erantzuna edo feedbacka ere jasoko du, Facebooken eta Twitterren alegia. "Egun ezin da webgunerik planteatu sare sozialen garrantzia kontuan hartu gabe. Gizarte oso bat dago eraikita sarean, eta haren komunikazioaren oinarria edukia partekatzea da", dio Unai Marzo BIT&MINAko ordezkariak. Lazkaoren kasuan, Udalarentzat zein herritarrentzat erabilgarria den tresna sortzea izan da asmoa, betiere, herritarrek osatzen duten komunitatea sustatzeko asmoz.

"Garai bateko webguneak erakusleiho hutsak ziren, baina gaur egun elkargune bilakatu dira, eta harremana komunikazioaren oinarri bihurtu da", dio arduradunak.

Lazkaoko udaleko eta herriko irudi korporatibo berriak.

Ia azken bi urteotan Lazkaon hamaika negozio berri ireki dira. Horien artean ile apaindegiak dira nagusi (hiru berri eratu baitira), baina baita kopistegi bat, larruzko poltsak saltzen dituen denda bat (Miszelania), pizeria bat (Napoli pizzeria), bi erropa denda (Momok umeen erropa saltzen du), jostailu denda bat eta ingenieritza aholkularitza eskaintzen duen Unnestudio.
Negozio-eredu horien atzean, hilabetetako prestakuntza eta ilusioa dago. Guk horietako batzurekin hitz egin dugu.

# EKINTZAILEAK(I): EKINTZAK

01



## MILA MARTÍNEZ
*Digital izar kopistegia*

### Hitz joko bat herriko lehen kopia-denda sortzeko

Buelta asko eman zioten behin betiko izena jarri aurretik. Azkenean, Digital izar izenaren aldeko hautua egin zuten. Euskaraz baina ahozkatzeko zaila ez zen hitz joko bat, alegia. Mila Martinez da dendaren arduraduna eta iazko urrian ireki zuen azkenik "herrian dago kopia-denda bakarra". Lazkaotarra da Mila Martinez eta herrian kopia, zerbitzu digitalak eta eskola materiala bilduko lituzkeen denda sortzeko beharra aurreikusi zuen. Orain denda dagoen lekuan lehen aholkularitza zerbitzua zegoen.

### Un juego de palabras en euskera para la primera copistería de Lazkao

Tras darle un par de vueltas, al final Digital izar resultó el nombre elegido. Un juego de palabras en euskera, fácil de pronunciar. Mila Martínez es la responsable del nuevo negocio que creó el pasado año, en octubre. Se trata de la única copistería de la localidad. La lazkaotarra Mila Martínez creía fervientemente en la necesidad de abrir una copistería que aglutinase servicios digitales, impresiones y material escolar. En ese lugar se ubicaba una empresa de asesoramiento.

02



## ESTIBALIZ BLANCO
*Zuri Ile apaindegia*

### "Hiru ile apaindegi ireki dira herrian denbora gutxian"

"Hiru ile apaindegi ireki dira herrian denbora gutxian eta ezustekoa izan bada ere, uste dut guztiontzako dagoela lekua", dio Estibaliz Blanco lazkaotarrak. 19 urte zituenetik ari da mundu horretan.Zuri Ileapaindegia, Estilo eta Raquel Oiarbidearen negozioa dira irekitako azken ile apaindegiak. Era guztietako txukunketak eta apainketak egiten dituzte, jendearen nahiak eta gogoak aldatzen ari baitira.

### "Se han abierto tres peluquerías en poco tiempo"

"Han abierto tres nuevas peluquerías (Zuri Ileapaindegia, Estilo y Raquel Oiarbide)", comenta sorprendida la lazkaotarra Estibalíz Blanco, la encargada de la peluquería y la responsable de atender las peticiones de sus clientes. Lleva desde los 19 años en el mundo de la peluquería.

En los dos últimos años se han abierto once nuevos negocios en Lazkao. Entre ellos destacan las peluquerías, así como una copistería, una tienda que vende bolsas de cuero (Miszelania), una pizzería, dos tiendas de ropa (una de ellas Momo vende ropa de niño), una tienda de juguetes y una consultoría de ingeniería (Unnestudio). Kristina Oruna Usabiaga, técnica Promoción Económica, cree que estos nuevos establecimientos enriquecen la oferta de la localidad y crean empleo. Detrás de estos nuevos modelos de negocio están los nuevos emprendedores. Hemos hablado con algunos de sus ilusionados dueños.

# EKINEZ EGINA

# **EMPRENDEDORES(I):** DUEÑOS DE SU PROPIO NEGOCIO



## AMAIA SUKIA ETA MAIALEN SUKIA
*Amets bat*

### "Amets bat zen Amets denda irekitzea"

Amaia eta Maialen Sukia lehengusuak dira eta argi zuten erropa denda bat ireki nahi zutela. Denda ireki eta bi aste gutxira, uda bete-betean, denda betetzen duten bezeroei arreta eskaintzen ari dira. "Amets bat zen denda irekitzea", diote. "Sentsazioa ona dugu", gaineratzen dute. Negozio bat irekiatzea neketsua den arren, argi dute "merezi duela". Poltsak, bitxiak eta erropa saltzen dute eta denboraldiaren arabera, erropa aldatzen joango dira.

### "Ha sido un sueño cumplido abrir la tienda Amets"

Las primas Amaia y Maialen Sukia tenían claro que querían abrir una tienda de ropa. Dos semanas después de la apertura de la tienda, conversan con esta revista mientras aconsejan y atienden a los clientes que llenan la tienda. "Ha sido un sueño abrir la tienda Amets", comentan. "Tenemos buenas sensaciones", prosiguen. Aunque el proceso de abrir una tienda sea a veces agotador, tienen claro que "ha merecido la pena". Venden ropa, bisutería y bolsos que van actualizando a medida que pase la temporada.



## MIREIA ESTEVEZ
*Koboloi*

### "Mundu osoko jostailuak ditugu"

Bost urte Grezian bizitzen egon eta gero, Lazkaora itzuli eta Mireia Estevezek eta Josu Sarriegik Koboloi izena daraman denda ireki berri dute. "Egun herriko jostailu-denda bakarra gara", dio Estevezek. Era guztietako jostailuak dituzte: didaktikoak, pentsatzeko jolasak... Mundu osoko jostailuak dituzte, gainera. Koboloi hitza greziar jatorrikoa da eta estresaren aurkako helduentzako jostailua da.

### "Tenemos juguetes de todo tipo"

Tras haber vivido cinco años en Grecia, la familia de Mireia Estévez decidió volver a Lazkao y abrir una tienda. "Somos la única tienda de juguetes de Lazkao", comenta Estevez. Koboloi ofrece todo tipo de juguetes: didácticos, para pensar... Hay juguetes de todo el mundo en Koboloi, que en griego significa "juguete antiestress para adultos".




# Uda eta gero?

Kultura, euskara eta kirol eskaintza eskainiko du Udalak irailetik aurera.

# Después del verano, ¿qué?

## El Ayuntamiento ofrece cursos de cultura, euskera y deporte.

Iraila hastearekin batera kirol ikastaroak eskainiko dira Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegian. Gazte eta helduentzako ikastaroak eskainiko dira. Hala nola, haurdunaldiko igeriketa, irailaren 6tik aurrera; pilates ikastaroa, irailaren 19tik aurrera eta mantenimenduko ikastaroa urriaren 1etik aurrera.

A partir del mes de septiembre y tras el parón del verano, el polideportivo Joxemiel Barandiaran oferta cursos tanto para los más jóvenes como para los mayores, que podrán iniciarse en el curso de pilates (a partir del 19 de septiembre), cursos de gimnasia de mantenimiento, a partir del 1 de ocubre. Las mujeres que preparen el parto podrán practicar el curso de natación a partir del 6 de septiembre..

### Kultur ikastaroak/Cursos culturales

1.-Euskal dantzak: Oin Arin dantza taldearen eskutik ostiraletan 19:00etatik 20:00etara.
Danzas vascas de la mano del grupo Oin Arin, los viernes de 19.00 horas a 20.00 horas.

2.-Aretoko dantzak (maila desberdinak): Astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan, 19:00ettaik 21:00etara, Udal kiroldegian.
Bailes de salón (diversos niveles): los lunes, martes, miércoles y los viernes, de las 19.00 horas a 21.00 horas, en el polideportivo municipal.

3.-Sevillana ikastaroa: asteartetan Arerian 18:30etatik 19:00etara.
Curso de sevillanas: los martes, en Areria, de 18.30 a 19.00.

4.-Yoga ikastaroa: Asteartean 10:00ettaik 11:30etara Orobionen / asteazkenetan 20:00etatik 2130etara Arerian.
Curso de yoga: los martes, desde las 10.00 horas a las 11.30 en Orobion y los miércoles desde las 20.00 horas a las 21.30 en Areria.

5.- Egur taila tailerra martxan izango da ostiralero Aresoko etxean 15:30etatik aurrera.
Taller de talla de madera, cada viernes, en Areso, a partir de las 15.30 horas.

6.- Orratzezko eskulanak: Asteazken arratsaldetan Orobionen.
Manualidades de aguja, los miércoles por la tarde, en Orobion.

### HELIANE DA COSTA
*Zumba irakaslea*

Eskarmentua handia du zumba eta pilates irakasten Gipuzkoako hainbat herritan. Lazkaon zumba eskolak ematen ditu. Bere iritziz, zumba oso dibertigarria da, energia askatzeko primerakoa eta ongi sentiarazten gaituena. Lazkaon irailetik aurrera emango ditu eskola horiek "erritmo handiz eta ondo pasaz".

### HELIANE DA COSTA
*Instructora de Zumba*

Tiene una gran experiencia como instructora de pilates y zumba a lo ancho del territorio guipuzcoano. En Lazkao se encargará de las clases de zumba. Se trata de "clases bailables de acondicionamiento físico que son divertidas, energéticas y te hacen sentir genial", afirma da Costa.

***Beste ikastaroren batekin interesatuta dagoena, taldea osatuz gero, Udalera joan dadila antolatzen saiatu asmoz***

*Se ruega que si alguien estuviera interesado en otra clase, siempre y cuando haya suficientes inscritos, acuda al Ayuntamiento con tal de que se organice el curso.*

# Pausoka: urrats osasuntsuak

## pasos saludables

Lazkaoko Udalak, Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin, Pausoka egitasmoa martxan jarri du. Helburu argia du: osasuna hobetzea modu atseginean eta ibilaldien bidez. Asmo horrekin astearteetan bilduko dira ibilbidetxo bat egin nahi duten herritarrak, goizeko 10:30etan. Topagunea herriko plazan izango da.

Paseoa bukatu ondoren salda eskainiko dute Orobione tabernan eta hilean behin Txindoki Egoitzan. Proiektuaren bultzatzaileek argi dute aktiboago sentituko direla parte hartzaileak eta lagun berriak egiteko parada eskainiko duela Pausokak.

Sei ibilbide izango ditu Pausokak. Lehenak 591, 71 metro izango ditu eta Lazkao txiki zelaia, plaza eta beneditarren fundazioa hartuko ditu bere gain. Bigarrenak, 696,29 metro izango dituenak, Areso, San Inazio zubia, Hirigoien eta plaza zeharkatuko ditu. Hirugarrenak, 1,31 kilometroko bidean, San Inazio, Enpaundi, Antzalde eta plaza bisitatuko ditu. Laugarrenak (1,59 kilometro), Areso, San Inazio zubia, Hirigoien, Txindoki egoitza eta plazaren bidea egingo du. Senperetik plazarako paseoa egin ahal izango dute partaideek 2,33 kilometrotan, bosgarren ibilbidean. Azkenak, berriz, honako bidea proposatzen du: Senpere, Areso, Lazkaoko rotonda, Zubizkitza eta plaza, 4,17 kilometrotan.

Pausokak Nagusilan, Azki, Orobione Jubilatuen Elkartea, Txindoki egoitza, San Benito Ikastola eta Orobione tabernaren laguntza izan du.

El Ayuntamiento de Lazkao, junto a Osakidetza y el Gobierno vasco, ha puesto en marcha la iniciativa Pausoka. El objetivo es claro: promover prácticas saludables de forma agradable. Todo aquel que quiera pasear y realizar un circuito por la localidad, podrá reunirse todos los martes, a partir de las 10.30 de la mañana. El lugar de encuentro será en la herriko plaza.

Tras finalizar el paseo, se ofrecerá salda en la taberna Orobione y una vez al mes en la asociación Txindoki. Los promotores del proyecto tienen claro que los participantes se van a sentir más activos y que la iniciativa permitirá conocer gente nueva y entablar nuevas amistades

Pausoka contará con seis paseos. El primero, de 591,71 metros y recorrerá Lazkao txiki, la plaza y la fundación de los benedictinos. El segundo, un trayecto de 696,29 metros, pasaría por Areso, el puente San Inazio zubia, Hirigoien y la plaza. El tercero, de 1,31 kilómetros, tendrá sus paradas en San Inazio, Enpaundi, Antzalde y la plaza. El cuarto paseo (1,59 kilómetros) transitará por Areso, el puente San Inazio, Hirigoien, Txindoki y la plaza.
En el quinto paseo, de 2,33 kilómetros, los participantes podrán caminar desde Senpere hasta la plaza. Por último, la última travesía atravesará Senpere, Areso, la rotonda de Lazkaoko, Zubizkitza y la plaza, en 4,17 kilómetros.

Pausoka ha contado con el apoyo de Nagusilan, Azki, Jubilatuen Elkartea, la asociación Txindoki, San Benito Ikastola y el bar Orobione.

## Boluntarioen beharra...

*Proiektu honetarako boluntarioak behar dira. Hortaz, nahi duenak udaletik pasa dadila izena ematera.*

## Voluntarios

*La iniciativa quiere realizar un llamamiento para captar voluntarios. Los interesados pueden pasar por el Ayuntamiento e inscribirse.*

# Hasi euskara hobetzen

Euskara ikasteko edo hobetzeko aukera izango dute herritarrek. Maizpidek hainbat aukera eskaintzen ditu euskara ikasteko: orduka, autoikasketaren bidez, barnetegian... Gainera, asistentzia egokia izanez gero, ia %100ean ordainduko dizkie ikastaroak Udalak. Horretarako, zenbait baldintzaz bete behar dituzte: langabeak izatea edo erretiratuak eta herrian erroldatuta egotea".

Los lazkaotarras podrán aprender o mejorar su nivel de euskera. Maizpide ofrece diversas modalidades para aprender euskera: autoaprendizaje, por horas, en el barnetegi... Además, los que acudan de forma regular a clase, podrán estudiar sin que les cueste dinero. Para ello, tendrán que cumplir los siguientes requisitos: ser jubilado o acreditar que están en paro, además de estar censado en Lazkao".

## Gazte eta helduentzako ikastaroak

## Cursos para jóvenes y adultos

| IKASTAROA<br>CURSO | EGUTEGIA<br>DIAS | ORDUTEGIA<br>HORARIO | BAZKIDEAK<br>SOCI@S | | EZ BAZKIDEAK<br>NO SOCI@S | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Igeriketa (20 saio)<br>Natación (20 sesiones) | Astelehenetik ostiralera<br>Lunes a viernes | Goizez/arratsaldez<br>Mañanas/ tardes | 47.00 | | 60.45 | |
| Igeriketa Terapeutikoa<br>Natación terapeutica | Asteartea eta osteguna<br>Martes y jueves | 10,00 – 11,00 | 31.30 | | 44.75 | |
| Haurdunaldiko igeria<br>Matronatación | Asteartea eta osteguna<br>Martes y jueves | 12,30 – 13,15<br>13,15 – 14,00 | 31.30 | | 44.75 | |
| | | | Hilabete | Hiru hilabete | Hilabete | Hiru hilabete |
| Pilates ikastaroa<br>Curso de pilates | Astelehena eta asteazkena<br>Lunes y miércoles | 9,00–10,00 / 10,00–11,00<br>17,30-18,30/18,30–19,30<br>19,30-20,30/20,30-21,30 | 48.70 | 17.00 | 62.15 | 157.35 |
| Pilates ikastaroa<br>Curso de pilates | Asteartea eta osteguna<br>Martes y jueves | 9,00–10,00 / 15,00 - 1600<br>18,30–19,30 / 19,30 - 20,30<br>20,,30-21,30 | | | | |
| Txirrindularitza indoor ikast.<br>Curso de ciclo-indoor | Asteartea eta osteguna<br>Martes y jueves | 18,00–19,00 / 19,00–20,00 20,00– 21,00 | 48.70 | 17.00 | 62.15 | 157.35 |
| Txirrindularitza indoor ikast.<br>Curso de ciclo-indoor | Astelehena eta asteazkena<br>Lunes y miércoles | 14,30–15,30<br>19,00–20,00 / 20,00–21,00 | | | | |
| Aerobik arratsaldea<br>Aerobic tardes | Astelehena, asteazkena, osteguna<br>Lunes, miércoles, jueves | 18,30 – 19,30 | 31.30 | 75.15 | 44.75 | 115.50 |
| Mantenimenduko soinketa<br>Gimnasia mantenimineto | Astelehena, asteazkena, ostirala<br>Lunes, miércoles, viernes | 9,00 – 10,00 | 31.30 | 75.15 | 44.75 | 115.50 |
| GAP ikastaroa<br>Curso de GAP | Astelehena eta asteazkena<br>Lunes y miércoles<br>Asteartea eta osteguna<br>Martes y jueves | 19,30 – 20,30<br><br>20,30 – 21,30 | 20.90 | 50.10 | 34.35 | 90.45 |
| Adinekoen soinketa<br>Gimnasia 3.edad | Astelehena, asteazkena, ostirala<br>Lunes, miércoles, viernes | 10,00 – 11,00 | 31.30 | 75.15 | 31.30 | 75.15 |
| ZUMBA ikastaroa<br>Curso de ZUMBA | Astelehena, asteazkena,ostirala<br>Lunes , miércoles, viernes | 9,00 – 10,00<br>10,00 – 11,00 | 31.30 | 75.15 | 44.75 | 115.50 |
| | Asteartea eta osteguna<br>Martes y jueves | 19,30 – 20,30 | 20.90 | 50.10 | 34.35 | 90.45 |

## Haurrentzako ikastaroak

## Cursos para niñ@s

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| FUMKY ikastaroa<br>Curso de FUNKY | Astelehena eta asteazkena<br>Lunes y miércoles | 17,30 – 18,30 | 20.90 | 50.10 | 29.55 | 76.05 |
| Gimnasia erritmikoa<br>Gimnasia ritmica | Osteguna / jueves<br>Ostirala / viernes | 17,00 – 18,00<br>16,45 – 17,45<br>17,45 – 18,45 | 15.00 | 35.50 | 23.65 | 61.45 |
| Igeriketa (20 saio)<br>Natación(20 sesiones) | Astelehene- asteazkena edo asteartea – osteguna<br>Lunes-miércoles o martes - jueves | 16,45–17,30 /<br>17,30–18,15<br>17,30–19,00/<br>19,0019,45 | 47.00 | | 55.65 | |
| Haurtxoen igeria<br>Natación bebes | Asteartea eta osteguna<br>Martes y jueves | 12,00 – 12,30 | 23.50 | | 32.15 | |
| Shorinjy kempoa<br>Shorinjy kempo | Astelehena, asteazkena, ostirala<br>Lunes, mièrcoles, viernes | 17,30 – 18,30<br>18,30 – 19,30 | | | | |

# LABU
# RRAK





ARGAZKIA FALTA DA

## LARTXAI ELKARTEKO BERRITZE LANAK MARTXAN JARRI DIRA

Lazkaomendiko Lartxai elkartea eta bere inguruan hainbat egokitzapen egin dira. Alde batetik eraikinaren kanpoaldea txukundu da, teilatu-hegalaren eta fatxadaren konponketa eta margotze lanak egin dira. Bestetik, barnealdeko erabilera anitzeko gela margotu, zorua berritu eta ekipamendu berria jarri da, aulkiak, mahaiak, proiektorea... ikastaroak eta bestelako erabilpenak egin ahal izateko. Eraikinaren kanpoaldeko saneamendu sarea eta fosa septikoa berritu dira. Lartxairako udal aurrekontuan 50.000,00€ko partida dago.

## EN MARCHA LOS TRABAJOS DE MEJORA DE LA ASOCIACIÓN LARTXAI

En la asociación Lartxai de Lazkaomendi se han realizado una serie de mejoras. Por un lado, han revestido el exterior del edifcio, se ha mejorado el alero, la fachada y se ha procedido a pintar el edificio. Además, han pintado la salsa multiusos del interior, han renovado el suelo y el equipamiento. También han cambiado la red de saneamiento y la fosa séptica.

## BASERRI BIDEETAN ASFALTATZE LANAK EGIN DIRA

Iztueta garakoan, Beiztin, eta Imazera, Agerrera eta Larraiz etxera doazen eremuetan asfaltze lanak egin dira. Auzolanean egin dituzte bide bazterren garbiketak.Aurrez, auzolanean bide bazterren garbiketak egin dituzte. Lan hauen aurrekontua 60.000 eurotakoa da eta Gipuzkoako Foru Aldunditik 33.151,21 eurotako diru laguntza jaso da.

## TRABAJOS DE ASFALTO EN LOS CAMINOS QUE LLEVAN A LOS BASERRIS

Los trabajos de asfalto de los caminos que llevan a los baserris Iztueta garakoa, Beizti, Imaz, Ager y Larraiz ya están terminados gracias a la labor de limpieza de los voluntarios de los campos de trabajo. El presupuesto de estas obras ha ascendido a 60.000 euros. La Diputación Foral de Gipuzkoa ha aportado una ayuda de 33.157,21 euros.

## ANTZALDEKO ASFALTATZE LANAK EGIN DIRA

Antzalde eta Areso kaleen artean dagoen errepidean zartatuta zeuden guneak konpondu eta asfalto-geruza berri bat jarri da, kaltetuta zeuden guneak gehiagora joan ez zitezen. Lan hauen kostua 20.405,57 €takoa izan da.

## TRABAJOS DE ASFALTO EN ANTZALDE

Se ha procedido a poner una capa de asfalto en las las calles entre Antzalde y Areso que ya mostraban un claro deterioro. Así, se pretendía evitar que los blandones fueran a más.
El presupuesto de estos trabajos asciende a 20.405,57 euros.



## GURUTZETAKO AUZOAN GARBIKETAK ETA BERRIKUNTZAK

Gurutze 7-10 eta Hirigoien 32-58ko gunean garbiketa sakona egin da. Hirigoien kalean espaloi gainean zegoen bidegorrian baldosa kendu eta asfaltoa gorriarekin egokitu da. Horrez gain, irrisgarritasun arazoak zituzten zenbait puntutan egokitze lanak egin dira. Eragozpenak eta arriskua sortzen zituzten zuhaitzak kendu eta berriak landatu dira, eta farola eta piboteak margotu dira.
Gurutzeko kirol gunea egokitu da, belar artifiziala eta sarezko itxitura jarriz. Lan hauek burututa kirol gunearen aukerak handitu dira. Lanek guztira 140.000€ko kostua izan dute.

## LIMPIEZA Y MEJORAS EN EL BARRIO DE GURUTZETA

En Gurutzeta 7-10 e Hirigoien 32-58 se ha procedido a realizar una profunda limpieza. En el bidegorri que está encima de la acera se ha procedido a quitar las baldosas y se han adaptado con asfalto rojo. Además, se han ejecutado algunas mejoras en los puntos que había problemas de accesibilidad. Han sido repuestos algunos árboles que creaban problemas y se han pintado las farolas y los pivotes. Se ha adecuado la zona deportiva de Gurutze con cesped artificial y cercado de red. De esta forma ha mejorado sustancialmente las posibilidades de la zona. Las obras han contado con un presupuesto de 140.000 euros.







## SAN PRUDENTZIO AUZOAN LANAK ABIARAZI DIRA

San Prudentzio auzoan garbiketa sakon bat egin da eta irristakor zegoen gune bati ez irristatzeko tratamendua eman zaio. Horrez gain, auzoko barandillak konpondu eta margotu dira eta auzo sarreran aldapa haundia dagoenez, espaloiaren luzera guztian heldulekuak jarriko dira. Honez gain kanpo gorriko ekipamendua berrituko da, saski baloiko kanasta eta mahai-teniseko mahai bat jarriko dira. Lanen aurrekontua 22.000 €takoa da.

## EN MARCHA LOS TRABAJOS DE LIMPIEZA EN SAN PRUDENTZIO

El barrio de San Prudentzio ha sido objeto de una profunda limpieza y se ha aplicado una tratamiento en una zona para evitar caídas. Se han reparado y pintado las barandillas y debido a que a la altura de la pendiente se han puesto agarraderos en toda la parte de la acera. Además, se ha mejorado el equipamiento del campo rojo, la canasta de baloncesto y la mesa de tenis de mesa..

## ITURGAITZAGA GUNEKO URBANIZAZIO LANAK

Iturgaitzagako gunearen urbanizazio proiektuaren barnean fase berri bati ekin zaio. Uztaila bukaeran Iturrialdea barruko bide berria egokituko zen, abuztuan, herrian trafiko gutxien dagoenean, Hiribarren kalea itxi eta hemen aurreikusten ziren lan haundienak burutu ahal izateko. Martxan dauden lanak burutzeko aurrerago beste fase batzuek trafikoan eraginak sortuko dituztela aurreikusten da. Lan guzti hauek Iturgaitzagako garapenaren barne daudenez bertako eragileen kontura izango dira.

## TRABAJOS DE URBANIZACIÓN EN ITURGAITZA

Se ha procedido a nueva fase del proyecto de urbanización de Iturgaitzaga. En julio se adaptó el camino nuevo del interior y se han puesto los tubos que recogen las aguas sucias y pluviales. Asimismo, se proyecta la urbanización de la calle Hiribarren.

## JOXEMIEL BARANDIARAN KIROLDEGIAN KANTXAKO ALDAGELAK BERRITU DIRA

Kiroldegian kantxako aldagelak berritu dira eta gainera, aire egokitua ezarri da.

## RENOVACIÓN DE LOS VESTUARIOS DE LAS CANCHAS DEL POLIDEPORTIVO JOXEMIEL BARANDIARAN

Se han renovado los vestuarios de las canchas del polideportivo Joxemiel Barandiaran y se ha puesto el aire acondicionado.

lazkao
pausoka

Lazkao
HEGOAK HARRO

# Animatu parte hartzera!!